

JAUNTZOEN SALDUKERIAK

Euzkadi'n, toki batean edo bestean, bi bear danda: edo langille geiagoren bearra, edo fabrika eta emplegu geiagoren bearra.

Nola jokatu dute euskaldun ugazabak, edo ugazaba askok egia esateko, bi problema oien aurrean? Gaizki geienetan. Auek gauza eta arazo "sozialak" dirala-ta, alde batera utzi aal balitez bezela.

Zenbait tokitan, Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, fabrikak aunditu egin dira, lantoki berriak sortu, eta abar. Langille geiagoren bearra zegoen. Orduan, geienak, ez dute pentsatu ez lanik gabe dauden euskaldunetz, ez Ameriketara dijoazenez, ez Ziberona ustutzen ari dala enpleguen faltaz...

Zenbait tokitan, berriz, bestaldera gertatzen; Ziberon eta Lapurdin bereziki. Auetan langille geiegi dago, eta fabrikak bear emplegu berri izateko. Sasi-euskaltzale ugazaba batzuk ordea bestera jokatu dute. Eta fabrika berriak jarri ez dedin saiatu dira. Zergaitik? Oso erraza. Alde batetik erria "ezkertu" ez dedin... Eta, bestetik, langilleak fabrika berriak eraman ez dituzten; beren fabriketan, zoritxarrez, gose-soldata besterik ez dago-ta...

Orra bi lotsa. Eta, batzutan, orren gaitokil jokatzan dutenak berak sagardotegi batean baxo erdi bat oni edo ari eman diotelako, danak alde: "oso jatorra duk... Baxo erdi bat langilleekin artzen ez duk lotzatzen...". Ideki ditzagun begiak. Orrelako ugazabak, euzkera langilleekin itzeginda ere, Euzkadi'ko etsaiak dira. Ez diote begiratzen ez Euzkadi'ren onari, ez langillearen bizimoduari. Dirua eta poltsikua daukate jainkotzat. Beren turuaz andurutzen bakarrik.

Ots, jauntxo zitalak.


Txillardegia

* * *

Es inconcebible que en el contexto mundial actual, existan pueblos que continúen siendo colonias...

* * *

Llega un tiempo en el que las represiones despiadadas, lejos de



sofocar una revolución, la agudizan y la difunden.

* * *

Quando la juventud de un país se inclina por la revolución o por la independencia, la partida está perdida para los conservadores.

* * *

Una fuerza puede triunfar en el plano militar; un pueblo puede triunfar en el plano político.

Gilbert Cesbron en "Le Monde" (agosto/62)